



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

LETREN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE LETRAS

Arte hezkuntza integral baten bidean:

Aisialdiko hezkuntza-proiektu baten proposamena

Leire Martinez Garcia

Artearen Historiako Gradua

Ikasturtea 2016-2017

Arte hezkuntza integral baten bidean: aisialdiko hezkuntza-proiektu baten proposamena

Tutorea: Haizea Barcenilla

Artearen Historiako eta Musikako Departamentua

AURKIBIDEA

1. Sarrera _____	4-5 orr.
2. Artea eta hezkuntza: arte hezkuntzaren beharra _____	5-8 orr.
3. Arte hezkuntzaren egoera hezkuntza arautuan _____	8-17 orr.
3.1. Arte hezkuntza programen erronka nagusienak _____	16-17 orr.
4. Arte hezkuntza integral baten bidean: arte hezkuntza aisialdian _____	17-29 orr.
4.1. Jokoa, hezkuntza-baliabidea _____	21-23 orr.
4.2. Aisialdiko hezkuntza-proiektu baten proposamen praktikoa _____	23-28 orr.
5. Ondorioak _____	28-29 orr.
6. Bibliografia _____	30-31 orr.

Laburpena

Gradu Amaierako Lan honek arte hezkuntza izango du protagonista. Gizakiaren formakuntzan kalitatezko artearen irakaskuntzak duen garrantzia abiapuntu harturik, gaur egungo hezkuntza arautuaren gabeziei erantzun eta lagundu diezaiokeen arte hezkuntza proiektu profesional bat aisialdian aurkeztea du helburu. Esparru berezi honek eskaintzen dituen onurak eta abantailak aintzat hartuta, formakuntza integral bat eskuratzeko mesedetan, aisialdiak arte hezkuntza programak garatzeko duen potentzialitatea baieztatzen saiatuko naiz.

Lana funtsean hiru zatitan antolatzen da. Lehenengo zatian, arte hezkuntzaren definizio ezberdin batzuk bilduko dira, ondoren, ikuspuntu antropologiko batetik, bere garrantzia eta bere beharrezkotasuna baieztatzeko. Horretarako, arte hezkuntzaren kontzepzio holistiko eta integral bat eskaintzen duten adituen proposamen teorikoetan oinarrituko gara. Bestalde, antropologia kulturalaren arlotik, artearen funtzio hezitzailea nabarmendu duten egileak ere kontuan hartu dira.

Bigarren zatian, arte hezkuntzaren egoera aztertuko dugu Espainian eta gure Autonomia Erkidegoan. Horretarako, legeak izan ditugu iturri. Estatu mailan eta Erkidegoan ezarri berri diren legeen bitartez, arte hezkuntzaren bazterketa curricularra ondorioztatu ahal izan dut. Honen kontra, hezkuntza arautuan, arte hezkuntzaren garrantzia eta eraginkortasuna azpimarratzen eta baieztatzen duen metodologia berezi bat (Art Thinking) eta programa museologiko bat (Guggenheim museoko “Artea Ikasbide”) azaltzen dira. Ondoren, hezkuntza arautuak orokorrean erakusten dituen gabeziak identifikatuta, erroka batzuk zehazten saiatu naiz, eta hauek garatzeko esparru alternatiboak proposatu ditut. Horretarako, aisialdian zentratu naiz.

Hirugarren zatia, aisialdiari eta honek hezkuntza-esparru gisa duen potentzialitateri eskainita dago. Zati honen edukiak beste hiru ataletan banatzen dira. Hasieran, aisialdiaren inguruko hurbilketa teoriko bat egiteaz gain, aditu ezberdinen argudioetan oinarrituz, aisialdia, artea eta hezkuntza uztartzen saiatuko gara. Bigarren zatian, ikuspuntu antropologiko batetik, jokoak hezkuntza-baliabide gisa dituen abantailak eta aukerak azalduko ditugu, ondoren, artea irakasteko duen egokitasuna defendatzeko. Azkenengo atalean, aisialdian garatzen den hezkuntza-proiektu praktikoa

bat aurkeztuko da: nik neuk martxan jarri dudan Espacio Artemisa hezkuntza-elkartea, alegia. Atal honek GRAL honen edukien muina suposatzen du; izan ere, definitu dudan arte hezkuntza integralaren aplikazioa ilustratzeko balio du.

Lan honen bidez, etorkizunean kalitatezko arte hezkuntza integral bat eraikitzeke itxaropenarekin, irakurleen artean arte hezkuntzaren inguruan hausnarketa bat bultzatzea espero dut.

1. Sarrera

Zein leku betetzen du arteak gure egungo bizitzan? Ze harreman dugu irudiarekin? Nola prestatzen gaitu hezkuntzak irudiaren inguruan antolatutako gizartean bizitzeko?

Lan hau, barne-interes batek bultzatuta, galdera guzti hauek argitzeko borondatearekin jaiotzen da. Azken urteetan hezkuntza sistemak pairatu dituen aldaketa anitzen testuinguruan, arte hezkuntzak erronka garrantzitsu bat suposatzen du. Gaur egungo gizarte globalizatu honetan, gizakiok ikaragarria den garapen bisuala pairatzen ari gara; hori dela eta, aldaketa kulturalen aurrean, arte hezkuntzak aldaketak ere eskatzen ditu. Zentzu honetan, esparru formaletik zein hezkuntza ez-formaletik, hausnarketa sakona egitea beharrezkoa da.

Honela, arte hezkuntzaren garrantzia azpimarratzea helburu duen lan honek, gaur egungo arte hezkuntzak derrigorrezko hezkuntzan duen egoera aztertzea eta bestetik, aisialdiak (esparru ez-formal gisa) artearen irakaskuntzan bete dezakeen papera aurkeztea bilatzen du. Ikerketa lan hau burutu ondoren, GRAL-aren amaieran, helburu nagusietatik eratorritako ideiak aintzat hartuta proposamen bat luzatuko da: aisialdian garatu daitekeen arte hezkuntza-proiektu bat, alegia.

Lana burutzeko baliabide mota desberdinak erabili ditut. Definizioak zehazteko eta marko teorikoa egiteko, iturri bibliografikoak izan ditut oinarri, antropologia zein arte hezkuntzatik hartutakoak. Kasu honetan, artearen irakaskuntza birplanteatu duten adituen eta irakasleen ikuspegia interesatu zait; horien artean, arte hezkuntzaren definizio integral bat eraikitzeke bidean, Maria Acaso (pedagogías invisibles) eta

Imanol Aguirre bezalako irakasleen argitalpenak. Bestalde, arte hezkuntzaren egoeraren azterketarako legeak erabili ditut, hauek baitira hezkuntza arautuaren parametroak ezartzen dituztenak. Horretaz gain, lege hauek gaur egun martxan dauden hezkuntza proiektuekin alderatu ditut.

Aisialdiari eskainitako atala garrantzitsuena, luzeena eta iturrien aldetik konplexuena izan da; izan ere, arlo akademikotik gutxi ikertu den arloa izan da eta orokorrean, existitzen den bibliografia testuinguru ez-formaletik dator (kasu honetan, iturri bibliografiko eta artikulua gehienak Elizarekin lotura estua duten erakundeek argitaratu dituzte: Euskal Herriko Eskautak, Caritas, EDE Fundazioa...). Hori dela eta, ahalik eta ikuspegi objektiboena lortzen saiatu naiz, artikulua akademikoak, argitalpen ez-formalak eta nire begirale formakuntza kontuan hartuz. Beste aldetik, joko eta bere gaitasun hezitzailea lantzerako orduan, liburu bat izan dut oinarri Johann Huizinga antropologoak idatzitako *Homo Ludens* izenburu duen liburua, hain zuzen. Informazioa osatzeko beste artikulua akademiko batzuk erabili ditut.

Orokorrean, lan honen bidez arte hezkuntzaren inguruko begirada holistiko eta integral bat biltzen saiatu naiz, kulturak eta bere barnean, artearen irakaskuntzak gizakien formakuntzan duen garrantzia azpimarratzeko helburuarekin. Ideia honetatik abiatuta, arte hezkuntzaren gaur egungo egoerara hurbilketa bat egin nahi izan dut, bertatik eratortzen diren erronkak kontuan hartuta, aisialdian kalitatezko arte hezkuntza proiektu bat proposatzeko.

2. Artea eta hezkuntza: arte hezkuntzaren beharra

Arteak gizaki bihurtzen gaitu. Espezie gisa bizirauten lagundu eta gure kulturaren adierazpide den aldetik, gure izateari lotutako funtsezko giza-ezaugarri bat da. Gure ingurua eta errealitatea ulertzeko artea behar dugu. Hori dela eta, gizaki guztiek artea ikasteko beharra eta ondorioz, eskubidea izan beharko genuke. Hauxe izango da lan honen ikasketa objektua, artearen irakaskuntza lantzen duen hezkuntza, hain zuzen.

Baina, zer da arte hezkuntza? “Arte hezkuntza” kontzeptu nahasgarria izan daiteke, haren definizioaren inguruan kontzepzio ezberdinak baitaude, “arte” kontzeptu beraren inguruan dauden hainbeste. Ondorioz, ez dago adostasun bat diziplina hezitzaile hau definitzerako orduan. Kontzeptua argitzearren, jarraian, gaur egun arte hezkuntzaren inguruan daude bi definizio ezberdin baina osagarriak emango ditut.

Maria Acaso irakasleak bere publikazioetan behin baino gehiagotan ondo azpimarratu duen moduan, arte hezkuntza ez da eskolan egiten ditugun eskulanak. Gaur egungo gizarteak bizi duen gehiegizko garapen bisualaren aurrean, arte hezkuntza jakintzarekin erlazionatutako arlotzat errebindikatu behar da¹, hots, eduki manualekin ez ezik, intelektualekin eta prozesu mentalekin lotuta dagoen jakintzatat jo behar dugu. Modu honetan, irakasle honek aurkezten duen arte hezkuntza “enseña a ver y a hacer con la cabeza y con las manos”². Ideia honen ildotik, arte hezkuntza diziplina anitzen batuketan oinarritu behar dela dio³, diziplina sistematiko bakar baten kaltetan. Artea ez baita arte plastikoetara murrizten, musika, literatura eta dantza artearen beste agerbideak dira eta batera aritu daitezke. Horretaz gain, arte hezkuntza ez da bakarrik hezkuntza-esparruan landu behar den irakasgai bat, ikus-hizkuntza garatzen den edozein lekutan landu daiteke: eskolan, erakunde kulturaletan eta baita gure aisialdian ere.

Arte hezkuntza, Roser Calaf eta Olaia Fontal adituen arabera, artea ulertzeko eta baloratzeko, baita arteaz gozatzeko beharrezkoak diren gaitasunak ere eskaintzen dituen jakintza-arloa izatera iritzi behar da⁴. Ezagutza hau modu integral batean eraikitzeke ezinbestekoak dira Artearen Historiaren, Sorkuntza Artistikoaren eta Kritikaren ekarpenak, bai eta Estetikarenak ere. Beste era batera esanda, artea eta artelanak ikastea eta teorizatzea, artelanak sortzea eta hauek baloratzzea artearen irakaskuntzan funtsezko eta zatiezinak izan beharko lirakekeen oinarriak kontsideratu behar ditugu. Honela, jakintza guzti hau hiru elementuen inguruan egituratu beharko litzateke: objektu artistikoa, sortzailea eta ikuslea; hirurak hezkuntza holistikoaren panteoia osatuz.⁵

¹ ACASO, M., *La educación artística no son manualidades: Nuevas prácticas en la enseñanza de las artes y cultura visual*, Madril, Los Libros de la Catarata, 2009, 17.orr.

² *Ibid.*, 18.orr.

³ *Ibid.*, 124-128.orr.

⁴ CALAF, R. eta FONTAL, O., *Como enseñar arte en la escuela*, Madril, Editorial Síntesis, 2010, 68.orr.

⁵ *Ibid.*, 67.orr.

Aipatutako diziplina bakoitzak parte hartzen du arte hezkuntzan, osagarriak diren elementuak eskainiz. Modu honetan, irakaskuntza mota honen edukiak zehazteko, hezkuntzaren helburuak nahitaez definitu behar ditugu eta horretarako, diziplina hauek kontuan hartzea erabaki guztiz logikoa izan beharko litzateke. Artea irakasteko, beste edozein diziplina bezala, ezinbestekoa da irakaskuntza-plangintza egoki bat burutzea. “Porque el arte se enseña y se aprende y, por tanto, requiere de un cuerpo teórico, metodológico y experimental específicos (...).”⁶

Baina, zergatik da beharrezkoa arte hezkuntza? Nolakoa izango zen mundua sorkuntza artistikorik gabe? Roser Calaf eta Olaia Fontal adituek ondo adierazten duten moduan, zinema eta liburuak ez ziren existituko, arkitektura ez zen garatuko, pintura eta eskultura desagertuko ziren... Arterik gabeko mundu bat jasangaitza izango zen, eta baita ezinezkoa ere, arteak gizaki bihurtzen gaituelako.⁷ Arteak gizakiaren funtsezko ezaugarri identitario bat suposatzen du, gure izaera definitzen baitu. Artea gure bizitzaren eta existentziaren zati bat da, gizadiaren komunikazio bidea.

Hainbat kultur-antropologo ezberdinek adierazi duten arabera, kultura gizakiaren biziraupenerako funtsezkoa eta ezinbestekoa den bizi-baliabidea da.⁸ Arteari esker, gure errealitatea interpretatzen eta egokitzen dugu bertan bizi ahal izateko. Modu honetan, esan dezakegu gizakia bere burua sortzeko gai den produktu kultural bat dela, eta horren ildotik, animalia sortzaileak garela, gure existentziaren sortzaileak garen heinean.

J.Campbell-en pentsamenduan oinarrituz eta zibilizazioa giza-asmakuntza edo sorkuntza bat bezala ulertuta, artea honen oinarrian egongo zela baieztatu dezakegu.⁹ Honela, zibilizazioaren eta kulturaren irudi poetiko bat eraiki dezakegu, non arteak funtzio gizatzailea betetzen duen.

Testuinguru teoriko honek bi ondorioetara eraman gaitzake: alde batetik, artea kultura dela baieztatzen eta bestetik, kultura gizakiaren sorkuntza bezala ulertuta,

⁶ *Ibid.*, 20.orr.

⁷ *Ibid.*, 17.orr.

⁸ GARAGALZA, L., *La interpretación de los símbolos*, Bartzelona, Editorial Antrophos, 1990

⁹ CAMPBELL, J., *El héroe de las mil caras: Psicoanálisis del mito*, Mexiko, Fondo de Cultura Económica, 2001.

pentsamendu sortzailea beharrezkoa dela onartzera. Ideia hauek kontuan hartuta, gizakiaren formakuntzarako arte hezkuntzaren beharra eta garrantzia azaltzen zaigu: “La educación artística sirve para aprender a ser creativos, aprender a crear producciones artísticas, y saber conocer, comprender, respetar, valorar, cuidar, disfrutar, y transmitir tanto nuestras propias creaciones como aquellas otras que hicieron los artistas del pasado y las que están haciendo los artistas del presente”.¹⁰

3. Arte- hezkuntzaren egoera hezkuntza arautuan.

“(…) el arte, ampliamente concebido, debería ser la base fundamental de la educación. Pues ninguna otra materia puede dar al niño no sólo una conciencia en la cual se hallan correlacionados y unificados imagen y concepto, sensación y pensamiento, sino también, al mismo tiempo, un conocimiento instintivo de las leyes del universo y un hábito o comportamiento en armonía con la naturaleza.”¹¹ Herbert Read.

Azken urteetan, hezkuntza pil-pilean egon den gai bat izan da gure herrialdean, batez ere, Estatuak 2013.urtean onartu zuen hezkuntza-erreforma dela eta. LOMCE (Ley Orgánica para la Mejora de la Calidad Educativa) edo “Wert” legeari buruz hitz egiten ari gara, hezkuntza-arloan zein arlo politikoan kezka eta hausnarketa sakonak eragin dituen. Lege honen ildo nagusiak aurkeztu zirenetik, hezkuntza-komunitatearen ukapena jaso du, aurreko hezkuntza-legearen arazoak konpondu ez ezik, hezkuntzaren kalitatea okertzen duela uste dutelako.

Lege honek sortutako asaldura eta polemika aprobetxatuz, posiblea da derrigorrezko hezkuntza osatzen duten arlo zehatzen gaineko legearen eragina aztertzea eta sisteman duten garrantziaren inguruko eztabaida berpiztea. Arlo ezberdinen artean, arte hezkuntzari eskainiko zaio arreta, hauxe delako lan honen ikasketa objektua.

¹⁰ CALAF, R. eta FONTAL, O., *op.cit.*,18.orr.

¹¹ READ, H.; *Educación por el arte*, Bartzelona, Paidós, 1982, 89.orr.

Espainiako hezkuntza sistemaren baitan artearen irakaskuntza aztertu duten Roser Calaf eta Olaia Fontal hezkuntza adituek argi uzten dute Lehen Hezkuntzatik ematen den bazterketa.¹² Bazterketa hau baieztatzeko, Estatu mailako zein Autonomia Erkidegoko legetara joko dugu, modu orokor batean derrigorrezko hezkuntzari dagokion kasua ezagutzeko.

Educación Primaria	
<p>Asignaturas troncales (El horario lectivo de estas áreas ocupará, como mínimo, el 50% del total del horario)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Lengua Castellana y Literatura • Matemáticas • Ciencias de la Naturaleza • Ciencias Sociales • Primera Lengua Extranjera
<p>Asignaturas específicas (Deberán cursar al menos 3 de una oferta de 6. Obligación de cursar E. Física y Religión o Valores Sociales y Cívicos)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Educación Física • Religión o Valores Sociales y Cívicos • Al menos 1 de las siguientes: <ul style="list-style-type: none"> ○ Educación Artística ○ Segunda Lengua Extranjera • Si las familias o tutores legales no la han elegido anteriormente: <ul style="list-style-type: none"> ○ Religión ○ Valores Sociales y Cívicos
<p>Asignaturas de libre configuración</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Lengua Cooficial y Literatura (recibirá un tratamiento análogo al área de Lengua Castellana y Literatura). • Asignaturas específicas no cursadas o áreas por determinar. • Profundización o refuerzo de las troncales o áreas por determinar.

Taula honetan, Derrigorrezko Lehen Hezkuntza eskaintzen diren irakaskai guztiak agertzen dira. Iturria: BOE (Boletín Oficial del Estado), [Ley Orgánica 8/2013, de 9 de diciembre](#)


irakaskaiak derrigorrezkoak dira. Ondorioz, “Arte Hezkuntza” hautazko irakaskai bat da eta kasu honetan, “Atzerriko Bigarren Hizkuntza” irakaskaiarekin lehiatu behar da. Gainera, garrantzitsua da nabarmentzea irakaskai hauen edukiak hezkuntza-administrazioei zehaztea dagokiela.

Horretaz gain, oso adierazgarriak dira hurrengo laukian azaltzen diren Lehen Hezkuntza ebaluatzeko ezarri berri dituzten amaierako probetan (3.mailaren eta 6. mailan egin behar direnak) kontuan hartzen diren edukiak. Lauki honek argi uzten digu ikasleen garapena baloratzeko beharrezkotzat jotzen dituzten sailak hizkuntzei eta zientziei lotutakoak baino ez direla, hau da, matematikak, zientzia, teknologia eta

¹² CALAF, R. eta FONTAL, O., *op.cit.*,13.orr.

¹³ Ley Orgánica 8/2013 del 9 de noviembre, para la mejora de la calidad educativa (LOMCE), *Boletín Oficial del Estado*, 10 de diciembre de 2013, 295 97870- 97871.orr. Eskuragarria: <https://www.boe.es/boe/dias/2013/12/10/pdfs/BOE-A-2013-12886.pdf>

hizkuntzari lotutako gaitasunak baino ez dituzte kontuan hartzen. Beste era batera esanda, gure mundua interpretatzeko eta ulertzeko funtsezkoak diren sormena, irudimena, autonomia, pertzepzio- eta mugimendu- garapena, sentikortasun estetikoaren garapena, norberaren adierazpenaren garapena, pentsamendu kritikoa, emoziozko adimenarena, komunikatzeko eta gizarteratzeko ahalmena... alde batera uzten dira.



Iturria: BOE (Boletín Oficial del Estado),
[Ley Orgánica 8/2013, de 9 de diciembre](#)

Lege honek proposatzen dituen erreforma hauen bitartez, ondorioztatu dezakegu arte-hezkuntzak nolabaiteko bazterketa jasaten duela, oinarritzko eduki nagusietatik kanpo gelditzen baita. Ideia hau baieztatzeko, gure Autonomia Erkidegoan ezarri berri den hezkuntza-erreformari erreparatuko diogu.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, 236/2015 abenduaren 22ko Dekretuak Oinarritzko Hezkuntzaren curriculuma zehazten duen Heziberri 2020 hezkuntza-erreforma berria biltzen du.¹⁴ Dekretu honen arabera, etapa honetan “Arte Hezkuntza” irakasgaiaren barruan, musika, arte plastikoak eta ikusizko arteak sartzen dira. Legeak gaur egun arte-hezkuntzak garrantzi berezia duela aitortzen du¹⁵ eta eduki multzo hauek ezartzen ditu Lehen Hezkuntzarako: “Musika entzumen bidez hautematea eta ulertzea, musika-adierazpena, -interpretazioa eta –sorkuntza, erreferente plastikoen eta ikusizko erreferenteen ulermena, pertzepzioa eta interpretazioa eta azkenik, arte plastikoen eta ikusizko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.”¹⁶

Edukiak zehaztu eta definitu ondoren, legeak gehien azpimarratzen duen ideia edo alderdia hurrengoa da: arte hezkuntzak beste alorrei (batez ere, zientzie eta

¹⁴ 236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarritzko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena, *BOPV*. Eskuragarri: http://www.isei-ivei.hezkuntza.net/c/document_library/get_file?uuid=c46b61d2-be04-41f0-b022-ad4383869cd9&groupId=635622

¹⁵ *Ibid.*, IV.eranskina: Lehen Hezkuntzako arloak, 128.orr.

¹⁶ *Ibid.*, 11.artikulua, 25.orr.

hizkuntzei) egin behar dien ekarpena; hau da, matematikarako gaitasuna, hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna garatzeko baliabide bat bezala ulertzen da artea.¹⁷ Modu honetan, curriculumean pisu gehiago duten diziplinen mesedetan, arteari bigarren mailako funtzio bat egozten zaio, beste irakasgaiak garatzeko osagarri bezala aurkeztuz. Arteak gizarterako eta herritartasunerako duen gaitasuna amaieran eta era laburrean aipatzen bada ere,¹⁸ kontzepzio honek bere arriskuak ditu; izan ere, artearen irakaskuntza beraren beharra eta berezko esangura kolokan jar dezake.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagokionez, arte hezkuntzaren egoera ez da asko aldatuko. Lehenik eta behin, Estatu mailan, etapa honetan bi ziklo ezberdinu behar ditugu: lehenengoak hiru ikasturte hartzen ditu kontuan (1., 2. eta 3. maila) eta bigarrenak bakar bat (4. maila).

Lehenengo zikloan, LOMCE legeak, arte hezkuntza barnean, “Musika” eta “Plastikazko, ikus-Entzunezko eta Ikusizko Hezkuntza” irakasgaiak ezberdintzen ditu eta biak, berariazko irakasgaien artean hautazkoen barruan sartzen dira (Lehen Hezkuntzan gertatzen zen bezala). Modu honetan, hezkuntza-administrazioaren edo ikastolaren arabera, ikasleek hautazko sei irakasgaien artean bat edo gehienez lau aukeratu ditzakete.¹⁹

Bigarren zikloan, bestalde, “Musika” eta “Plastikazko, Ikus-Entzunezko eta Ikusizko Hezkuntza” irakasgaiekin batera, hirugarren bat agertzen da: “Dantza eta Arte Eszenikoak”. Hori kenduta, ez dago aldaketarik, irakasgai guzti hauek berariazko irakasgai hautazkoen barnean jarraitzen dutelako. Laugarren maila amaitzean, ikasle guztiak derrigorrezko banakako frogatik burutu behar dute, etapa honi dagozkion oinarriko gaitasunen eskurapena frogatzeko. Ezarri berri den frogatik honetara aurkeztu daitezke irakasgai guztietan balorapen positiboa lortu duten ikasleak edo bi irakasgaietan balorapen negatiboa lortu dutenak, beti ere horien artean, “Lengua Castellana y Literatura” eta “Matematika” irakasgaiak ez direnean.²⁰ Beraz, kasu

¹⁷ *Ibid.*, IV.eranskina: Lehen Hezkuntzako arloak, 133-137.orr.

¹⁸ *Ibid.*, IV.eranskina: Lehen Hezkuntzako arloak, 137-138.orr.

¹⁹ Ley Orgánica 8/2013, *op.cit.*, 97870- 97875.orr.

²⁰ *Ibid.*, 97876- 97877.orr.



honetan ere (Lehen Hezkuntza bezala), arte hezkuntzari lotutako irakasgaiak bigarren mailako garrantzi bat aurkezten dute ikasleen garapena baloratzeko orduan.

DBH-ko lehenengo eta bigarren zikloko irakasgaiak. Iturria: BOE (Boletín Oficial del Estado), [Ley Orgánica 8/2013, de 9 de diciembre](#)

Primer ciclo: 1º, 2º y 3º de ESO

	Primero ESO	Segundo ESO	Tercero ESO
Asignaturas troncales (El horario lectivo mínimo de estas materias ocupará, como mínimo, el 50% del total del horario)	<ul style="list-style-type: none"> Biología y Geología Geografía e Historia Lengua Castellana y Literatura Matemáticas Primera Lengua Extranjera 	<ul style="list-style-type: none"> Física y Química Geografía e Historia Lengua Castellana y Literatura Matemáticas Primera Lengua Extranjera 	<ul style="list-style-type: none"> Biología y Geología Física y Química Geografía e Historia Lengua Castellana y Literatura Primera Lengua Extranjera <p>Materia de opción:</p> <ul style="list-style-type: none"> Matemáticas Orientadas a las Enseñanzas Académicas Matemáticas Orientadas a las Enseñanzas Aplicadas
Asignaturas específicas (En cada uno de los cursos)	<ul style="list-style-type: none"> Educación Física* Religión o Valores Éticos* <p>Un mínimo de 1 y un máximo de 4 de las siguientes (que podrán ser diferentes en cada uno de los cursos):</p> <ul style="list-style-type: none"> Cultura Clásica Iniciación a la Actividad Emprendedora y Empresarial Música Tecnología Educación Plástica, Visual y Audiovisual Segunda Lengua Extranjera Religión** Valores Éticos** 		
Asignaturas de libre configuración	<ul style="list-style-type: none"> Lengua Cooficial y Literatura (recibirá un tratamiento análogo al de la materia de Lengua Castellana y Literatura). Asignaturas específicas no cursadas o materias por determinar. 		

*Se cursarán en todos los cursos.

** Si los padres, madres o tutores legales, o en su caso los estudiantes, no la han escogido anteriormente.

Segundo ciclo: 4º de ESO

	Enseñanzas académicas (hacia Bachillerato)	Enseñanzas aplicadas (hacia Formación Profesional)
Asignaturas Troncales (El horario lectivo de estas materias ocupará, como mínimo, el 50 % del total del horario)	<p>Troncales generales</p> <ul style="list-style-type: none"> Geografía e Historia Lengua Castellana y Literatura Primera Lengua Extranjera 	
	<ul style="list-style-type: none"> Matemáticas Orientadas a las Enseñanzas Académicas 	<ul style="list-style-type: none"> Matemáticas Orientadas a las Enseñanzas Aplicadas
Asignaturas específicas (En cada uno de los cursos)	<p>Troncales de cada opción</p>	
	<p>A elegir 2 entre las siguientes:</p> <ul style="list-style-type: none"> Biología y Geología Economía Física y Química Latín 	<p>A elegir 2 entre las siguientes:</p> <ul style="list-style-type: none"> Ciencias Aplicadas a la Actividad Profesional Iniciación a la Actividad Emprendedora y Empresarial Tecnología
Asignaturas de libre configuración	<ul style="list-style-type: none"> Educación Física* Religión o Valores Éticos* <p>Un mínimo de 1 y un máximo de 4 de las siguientes:</p> <ul style="list-style-type: none"> Artes Escénicas y Danza Cultura Científica Cultura Clásica Filosofía Música Tecnologías de la Información y la Comunicación Segunda Lengua Extranjera Educación Plástica, Visual y Audiovisual Una materia del bloque de asignaturas troncales no cursada Religión** Valores Éticos** 	
Asignaturas de libre configuración	<ul style="list-style-type: none"> Lengua Cooficial y Literatura (recibirá un tratamiento análogo al de la materia de Lengua Castellana y Literatura). Asignaturas específicas no cursadas o materias por determinar. Materias de ampliación de los contenidos de alguna de las materias de los bloques de asignaturas troncales o específicas. 	

*Se cursarán en todos los cursos.

** Si los padres, madres o tutores legales, o en su caso los estudiantes, no la han escogido anteriormente.

Eta honetan, arte hezkuntzari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoaren legeri erreparatuta, Estatu mailako legearekin duen antzekotasunak oso nabariak dira. Hori dela eta, ideiak ez errepikatzeko, ez dugu bere azterketan sakonduko. Bakarrak adieraziko dugu bi zikloetan hautazko irakasgaien artean artearen irakaskuntzari lotutako irakasgaiak eskainiko direla (Estatu mailan bezala). Honela, lehen hiru mailetan hautazko ikasgaien bat ikasi ahal izango da eta laugarren mailan hautazko ikasgai bat edo gehiago egin ahal izango dira.²¹ Ikastetxeak hautazko guztiak eskaini behar dituen arren, taldea ez bada ateratzen formuntzakuntza ez amaitzeko arriskua dago eta ondorioz, arrisku honek arteari lotutako irakasgai guztiengan eragina izan dezake.

Lege berri hauek definitutako marko juridikoa aztertu ondoren, artearen irakaskuntzaren bazterketa agerikoa dela baieztatu dezakegu. Zentzu honetan, Maria Acaso irakasleak argi uzten du arte hezkuntzaren bazterketa eta gutxiespen egoera hau erabaki politiko bat baino ez dela.²² Arte irakasle honen aburuz, Estatuaren mesedetara lan egiten duen pentsamendu bat garatzeko eta ordena soziala bermatzeko, ezinbestekoa da hiritarrek irudiak ez ulertzea. Horretarako, arte hezkuntza ez da eraginkorra izan

²¹ 236/2015 DEKRETUA, *op.cit.*, 12. artikulua, 26.orr.

²² ACASO, M., *op.cit.*, 121-122.orr.

behar. Aditu honen iritziz, Estatu mailako arte hezkuntzaren eraginkortasun falta hau funtsezkoak diren hiru gertaera edo egoerari zor dizkiogu:

1. Derrigorrezko Lehen Hezkuntzan, artean eta artearen pedagogian adituak diren irakasleen gabezia.
2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Plastika eta Ikus-hezkuntza irakasgaien aritzen diren irakasleen oinarrizko formakuntza eskasa.
3. Arte hezkuntzari eskainitako goi-mailako ikasketa planifikatu baten existentzia eza, bai eta museo-hezitzaileentzako formakuntza espezifiko baten gabezia ere.²³

Testuinguru honetan, arte hezkuntzan jarduten duten irakasleak, hezitzaileak, begiraleak...arriskuaren aurrean bakarrik daude²⁴; irakasleak profesionalki birziklatzeko bideratutako kurtsoak egitera behartuta daude edo autodidakta izatera. Maria Acasok behin baino gehiagotan aipatzen duen legez, irakasleen formakuntza berritu ez ezik, premiazkoa da museo-hezitzaileen egoera hobetzea, zeintzuk hezkuntzari dedikatutako irakasgairik gabeko arte-gradu bat burutu ondoren, master espezializatu bat egin behar duten, gerora, esfortzu handi horren ostean, baldintza ekonomiko estuekin topatzeko.²⁵ Alderdi hau interesgarria eta garrantzitsua bada ere, ez gara sartuko hezitzaileen egoera aztertzeraz lan honen ikerketa xedetik ez aldentzeko.

Hezkuntza formalaren testuinguruan murgildurik, *pedagogia toxiko*²⁶ honekin amaitu nahi duten hainbat ahalegin eta hezkuntza-proiektu existitu eta azpimarratu beharko lirateke. Proposamen horietako bat Maria Acaso berak, Clara Mejías irakaslearekin batera planteatu du. Bere metodo pedagogikoak *Art Thinking* du izena eta neurohezkuntzan oinarritzen da²⁷; hots, Oxford-eko eta Harvard-eko Unibertsitateetan egindako ikerketa neurologikoen emaitzetan oinarritzen dira, zeintzuk adierazi duten gizakiongan jakin-mina piztean, emozio bat sortu daitekeela eta horri esker,

²³ *Ibid.*, 122.orr.

²⁴ *Ibid.*, 123.orr.

²⁵ *Ibid.*, 123.orr.

²⁶ *Ibid.*, 40.orr.

²⁷ TORRES MENÁRGUEZ, A., *Profesoras contra la pedagogía tóxica*, El País egunkarian argituratua 2017ko otsailaren 13an. Eskuragarria: http://economia.elpais.com/economia/2017/02/07/actualidad/1486485679_572946.html?id_externo_rsoc=whatsapp. (2017/05/18 kontsultatua)

irakaskuntza ahalmena handitu egiten dela.²⁸ Aurkikuntza hau geletara eraman nahi dute, eta honela, metodologia tradizionalen kontra doan eta arte-sorkuntza prozesuetan oinarritzen den metodologia berri hau planteatzen dute.

Bi aditu hauen iritziz, pedagogia tradizionala ondoezari, antsietateari, beldurrari eta ebaluazioari lotuta dago.²⁹ Hori dela eta, planteatzen duten proposamenean osasuntsuak ez diren emozioak baztertzea eta horien ordean, gozamina sortzea dute helburu. Horretarako artea erabiliko dute, ikasteko gura eta jakin-mina modu natural eta automatiko batez ager daitezten. Ikaskuntza eraginkorra izan dadin, bi irakasle hauek funtsezkotzat jotzen dute ikaslearentzat edukiek zein hezkuntza-prozesuek izaera bereizlea eta berezia izatea. Hori dela eta, klasea elementu probokatzailer batekin hasia gomendagarria da. Hala adierazten du Francisco Morak, Madrilgo Complutense Unibertsitateko Medikuntza fakultateko irakaslea eta *Neuroeducación. Solo se puede aprender aquello que se ama* liburuaren egilea: “Hay que comenzar la clase con un elemento provocador, puede ser una frase, un dibujo o un pensamiento; algo que resulte chocante.”³⁰ Azken finean, gizakiok ezberdinak diren gauzetatik, arrotzak eta ezezagunak diren elementuetatik ikasten dugu.

Argi dago hezkuntza formala erabat baldintzatuta dagoela bere marko erregulatzailerari lotutako faktore ezberdinengatik³¹: hezkuntza-programak (curriculumak, edukiak, etapa ezberdinak...) eta ordutegi zehaztuak, ikasgela beraren disposizioa (eserlekuen eta mahaien kokapena, espazio murriztua ...), irakasle eta ikasleen arteko harremanaren kontzepzio tradizionalak (subjektu pasiboa eta subjektu aktiboa, jakintsua eta ez-jakintsua ...), ikasleen errealitatearekin dagoen lotura eza eta faktore ekonomikoek (presupuesto murriztuak, material teknikoaren gabezia eta berriztapen eza...) eragina dute hezkuntzan, bere berritzeko aukerak murriztuz.

²⁸ TORRES MENÁRGUEZ, A., *Entrevista a Francisco Mora, Experto en neuroeducación: “Hay que acabar con el formato de clases de 50 minutos”*, El País egunkarian argitaratua 2017ko otsailaren 20an. Eskuragarria: http://economia.elpais.com/economia/2017/02/17/actualidad/1487331225_284546.html (2017/05/18 kontsultatua)

²⁹ TORRES MENÁRGUEZ, A., *Profesoras contra la pedagogía tóxica*, op.cit.

³⁰ *Ibid.*

³¹ CALAF, R. eta FONTAL, O., op.cit., 143. orr.

Hala eta guztiz ere, hezkuntza formala ezaugarritzen duten baldintza hauek testuinguru ez-formalekin harreman osagarriak ezartzeko aukera planteatzen dute. Museo batera egindako bisita gidatu batek, adibidez, ikastolek behar duten osagarritasun beharrari erantzun liezaioke. Ildo honetatik, esan beharra dago gaur egungo museo gehienak ikastolei zuzendutako hezkuntza-programak eskaintzen dituztela. Horien artean, arlo praktikoan, ikastolak eta museoak elkartzen dituen adibide adierazgarri gisa, Guggenheim (New York eta Bilbao) museoetako “Artea Ikasbide” proiektua nabarmendu behar da. Programa honek New York-eko Solomon R. Guggenheim Museoko “Learning Through Art” (LTA) programan du jatorria. Hezkuntza-programa honen helburu nagusia artearen bidez (jarduera artistikoen bidez) hezkuntza curriculumaren beste irakasgai desberdinak indartzea eta irakastea da.³² 1998. urtetik hezkuntza-programa berezi hau Lehen Hezkuntza eskaintzen duten ikastola publikoekin garatzen da. Proiektuak 20 asteko iraupena dauka, astean behin ordu eta erdiko iraupena duten saio ezberdinetan antolatuta eta bi zati edo fase ezberdinduz.

Lehenengo fasean, artearen bidez landuko diren unitate didaktikoen diseinua burutzen da. Diseinu honetan, museoak proiektu bakoitzerako aurkezten duen erreferentziatzeko artista batek eta ikastolako irakasleek parte-hartzen dute.³³ Zentzu honetan, hezkuntza-programa bakoitza bakarra da eta erabat pertsonalizatuta dago ikastolaren interesei eta gabeziei erantzuteko. Bigarren fasean, ikasleen sorkuntzak museoeko erakusketa-espazio berezi batean erakusten dira.³⁴ Gaur egun, museoeko web orriari³⁵ posiblea da, teknika artistikoen edo curriculum-arloaren arabera, unitate didaktiko ezberdinak aurkitzea.

Pasaden urtean garatutako proiektuen artean, adibide gisa, Irungo Leka Enea-Anaka Lehen Hezkuntzako Ikastolarekin egindako proiektua nabarmenduko dugu, zeinean, Maider López artistarekin batera unibertsoari lotutako unitate didaktikoa landu zuten. Artista berak Guggenheim-eko web-orriari³⁶ ondo azaltzen ditu landutako

³²*Ibid.*, 153.orr.

³³*Ibid.*, 153.orr.

³⁴*Ibid.*, 154.orr.

³⁵ Guggenheim museoaren web orria: <http://lta.guggenheim-bilbao.eus> (2017/05/15 kontsultatua)

³⁶ Guggenheim. Aprendiendo a través del Arte 2016 / Artea Ikasbide 2016: <http://lta.guggenheim-bilbao.eus/eu/parte-hartzaileak/> (2017/05/14 kontsultatua)

edukiak eta burututako ekintza ezberdinak. Guggenheim-eko web orrialdetik ere, Begoña Alkalde irakaslearen hitzak berreskuratzea egokia da, proiektu zehatz honek eskaini dien esperientzia eta baliogarrtasuna oso ondo laburbiltzen dutelako: “Ikasleek modu ezberdin batean landu dute gaia, testu liburua eta eguneroko dinamika alde batera utzita. (...) Horrela, ulertzeko zailak diren kontzeptuak eta terminoak ikasi dituzte. Gaiaren inguruan ikasleen interesa piztea eta motibatuta egotea lortu da. (...) ikasi dute eta ondo pasa dute.”³⁷

Hezkuntza formala eta ez-formala batzen dituzten halako proiektuak garatzea beharrezkoa da umeen sormen gaitasuna lantzeko eta, oro har, arte-hezkuntzak eta bere edukiek hezkuntza-programan izan behar duten lekua aldarrikatzeko ere. Hori dela eta, aipatu ditudan proiektuak adibidetzat harturik, museotako hezkuntza-programen garrantzia azpimarratzea funtsezkoa da, izan ere, hezkuntza formalaren edukiak eta gabeziak osatzeko baliabide eraginkor bezala kontsideratu behar ditugu. Honela, museoen eta ikastolen artean erlazio estu eta sendo bat edukitzea ezinbestekoa da kalitatezko arte hezkuntza integral bat eskaintzeko. Tamalez halako programek eskola gutxi batzuetara baino ezin dira iritsi (ez dute aurrekontu eta pertsonal nahikorik eta ez dira garatzen museo guztietan) eta ondorioz, hezkuntza testuinguru zabalari dagokionez, hankamotz geratzen dira.

3.1. Arte hezkuntza programen erronka nagusienak

Ikusi dugun bezala, gaur egungo arte hezkuntzaren egoera oso konplexua da. Imanol Aguirre irakasleak bere liburuan adierazten duen legez, balore modernoek jasaten duten krisialdia dela eta, mendebaldeko kultura nahastez eta kontrastez beteriko egoeran kokatzen da.³⁸ Hori dela eta, arte hezkuntza berriak erronka kultural eta pedagogiko berriei erantzun behar die.

Atal honetan, arte hezkuntzak azaltzen dituen erronka pedagogiko garrantzitsuenak biltzen saiatuko gara. Horretarako, Maria Acasorengana berriro joko

³⁷ *Ibid.*

³⁸ ARREGUI, I., *Teorías y prácticas en educación artística: Ideas para una revisión pragmatista de la experiencia estética*, Universidad Pública de Navarra, Ediciones OCTAEDRO/EUB, 2005, 289.orr.

dugu, izan ere, irakasle honek bere liburuan biltzen dituen erronka artistikoen³⁹ artean, aipagarrienak azpimarratuko ditugulako:

1. Arte garaikidea arte-hezkuntzaren ohiko edukietan barneratzeko beharra. Arte garaikidea gaur egungo arte da, hori dela eta, ez du zentzurik Velazquez edo Monet bezalako artistenganako hurbilketa egitea, gaur egungo artearengana ez bagara hurbiltzen. Arte garaikidea arte-hezkuntzaren oinarritzko baliabide gisa erabili behar da.
2. Arte hezkuntza ikasle guztientzat beharrezkoa dela aitortzea, ez bakarrik marrazten trebeak direnentzat. Matematikak edota ingurumena irakasten den eran, artea ikasketa-planaren parte izan behar da; izan ere, gizakiok egunero produktu kulturalak kontsumitzen eta sortzen ditugu (argazkiak eta bideoak egiten ditugu, filmak ikusten ditugu....).
3. Ulertzea artearekin erlazionatutako sorkuntzek, analisisiek eta esperientziekin jakintza eta pentsamendu kritikoa sortzen dutela. Artea sortzeak pentsatzea suposatzen du.

Aipatutako erronkak eta aurreko paragrafoetan azaldutako arte hezkuntzaren egoera kontuan hartuta, ondorioztatu dezakegu sustapen publikoa duten erakunde kulturaletan zein hezkuntza-erakunde publikoetan oso zaila dela hezkuntza-programa berriak garatzea, estamentu politikoen gorabeherak baldintzatzen dituztelako. Horregatik, jarraian, arte hezkuntzaren arloan hobekuntza bat iritsi arte, aisialdiak hezkuntza-esparru berri gisa har dezakeen garrantzia erakusten saiatuko naiz.

4. Arte hezkuntza integral baten bidean: aisialdia eta arte hezkuntza

“Somos libres para elegir la forma de expresión, de creación o de recreación que va a llenar nuestras horas de vivencias gratificantes.”⁴⁰

M^a Luisa Fernandez de Arroyabe.

³⁹ ACASO, M, *op.cit.*, 124-128.orr.

⁴⁰ FERNANDEZ DE ARROYABE AMIGO, M.L., “El arte como vivencia del ocio”, *Documentos de Estudios de Ocio*, Universidad de Deusto, 13, 2000, 9.orr

Lehenik eta behin, aisialdia definitzea beharrezkoa da, izan ere, oso kontzeptu nahasgarria izan daiteke, astialdia eta aisiarekin nahastu egiten dena. Autore askok idatzi dute honen inguruan⁴¹, baina, orokorrean, esan dezakegu aisialdi kontzeptuak gaztelaniaz bi adiera ezberdin eduki ditzakeela (batak “tiempo libre” kontzeptuari egiten dio erreferentzia eta besteak “ocio”). Bi kontzeptu hauen esanahia ezberdintzea funtsezkoa da gure arte-hezkuntza proiektuaren testuinguru teorikoa ulertzeko.

Akademikoki aisia sakonki ikertu den kontzeptua dugu. Deusto-ko Unibertsitate berak aisiari ikerkuntza talde berezi bat eskaini dion bitartean, aisialdiak aplikazio asko izan ditu baina ikerketa gutxiago arlo akademikoan. Funtsean, aisiak edukiari egiten dio erreferentzia eta aisialdiak, aldiz, betekizunetatik aske gozatzen dugun denborari.⁴² Ikuspuntu honetatik, aisia aisialdia erabiltzeko modua bezala ulertu behar dugu; honela, era libre batez aukeratutako ekintzek osatuko dute gure aisia. Ondorioz, esan dezakegu gure denbora betetzeko erabiltzen ditugun ekintza guztiek, euren izaera ezberdina izan arren (saskibaloira jolastu, zinemara joan, kafe bat hartu, museo bat bisitatu...), euren garapenak gozamina sortzen duela.⁴³ Testuinguru teoriko honetan murgildurik, aurrerago azalduko dugun arte-hezkuntza proiektua aisialdian garatzen den aisi mota bat bezala aurkeztuko dugu.

Aisialdia gizakiok era libre batez aukeratzen ditugun ekintzaz betetako denbora bada, eguneroko betebeharretatik kanpo, hots, ikastola edo unibertsitateko klaseetatik, lanetik zein betebeharrak sozialetatik askatuta, inolako ezarpenik gabe burutzen ditugun jarduerak hartzen dira kontuan. Jarduera hauek bakoitzaren interesei erantzuten dizkiete eta ondo pasatzeko, atsedean hartzeko, lagunak ezagutzeko, ikasteko edo beste helburu batzuk betetzeko burutzen ditugu.

⁴¹ Beste autore batzuen artean, Sebastián de Graziak, Herbert Marcusek, Dumazedierrek eta Krausek, landu dute aisialdia eta aisiaren arteko ezberdintasunak bere lan teorikoetan.

⁴² CUENCA CABEZA, M., “Zer da aisia? 25 erantzun klasiko eta lekukotza bat”, *Documentos de Estudio de Ocio*, Universidad de Deusto, 49, 2012, 6-7.orr.

⁴³ HERNÁNDEZ MENDO, A., “Acerca del ocio, del tiempo libre y la animación sociocultural”, *Revista Digital-Buenos Aires*, Universidad de Málaga, 23, 2000, 3.orr.

Modu honetan, Rafael Mendia pedagogoak baieztatzen duen moduan, aisialdiak, bere izaera askeari esker, botere eta indar handia eskaintzen du hezkuntza arloan.⁴⁴ Honela, aisialdian eskaini daitekeen hezkuntza, ez-formala kontsideratzen bada ere, garrantzi handikoa da; izan ere, haur eta gazteen hazkuntzan lagundu ez ezik, bere helduaroan funtsezkoak izango diren gaitasunak, ezagutzak eta baloreak eskainiko dizkielako. Hori dela eta, hezkuntza integral bat sustatzeko baliabide eraginkorrean bihurtu daiteke. Guztien ongizatera bideratutako baloreen ikaskuntza desinteresatu bat non, atsegin hartzeko ekintzen bidez, gizabanakoek euren burua garatzeko aukera izango duten.

“No decimos nada nuevo al afirmar que la educación del niño, no se reduce al ámbito familiar o escolar exclusivamente, el medio ambiente es un verdadero lugar de aprendizaje.” Rafael Mendia eta Jesus M^a Pitarque.⁴⁵

Egoera hau ikusita, argi dago hezkuntza formala eta familia iristen ez diren lekuetan azaltzen diren hutsuneak betetzeko aisialdiaren presentzia funtsezkoa dela. Oinarrizkoak eta ezinbestekoak diren hezkuntza-premia horiek bete daitezten, aisialdian lan egiten duten hezitzaileen formakuntza osoa eta zehatza izan behar da, eta horrek, hausnarketa pedagogiko bat eskatzen du.

Rafael Mendia pedagogoak eta Jesus M^a Pitarque irakasleak, aisialdiak gizakiongan duen garrantzia nabarmendu eta benetako hezkuntza proiektu bat garatzeko eskaintzen duen aukera paregabea azpimarratu dute; aurretik aipatu ditugun erronka pedagogiko eta artistiko gehienak lortzeko esparru aproposena baita. Hori dela eta, lan honetan erabaki dut aisialdia hezkuntza-esparru berri gisa aurkeztea, arte hezkuntzari dagozkion ohiko esparruetatik askatuz (hezkuntza formala eta erakunde kulturalak) eta atal propio bat eskainiz; arte-hezkuntza proiektu integral bat garatzeko duen potentzialitatea azpimarratzeko xedearekin.

Baina, zergatik aurkezten dugu aisialdia arte hezkuntza garatzeko esparru egokia bezala? Artea eta aisialdia. Gure pentsamenduan oso barneratuta dago binomio hau.

⁴⁴ PÉREZ, G., “El ocio y el tiempo libre: ámbitos privilegiados de educación”, *Comunidad Educativa*, Universidad de Málaga, 161, 1988, 6-9.orr.

⁴⁵ MENDIA, R. eta PITARQUE, J., *Educación en el Tiempo Libre*, Salamanca, San Pío X, 1975, 9.orr.

Artista bati buruz pentsatzean - batez ere, artista moderno bat burura etortzen zaigunean-, bere aisialdian lan egiten duen gizon bat imajinatzen dugu. Maria Luisa Fernandez de Arroyabe irakasleak adierazten duen moduan: “En el caso de los artistas ocurre, con frecuencia, que la actividad artística es para ellos un trabajo gratificante, voluntario (...).”⁴⁶ Aisialdia eta artea. Artea eta aisialdia ahaldundu behar dira eta horretarako binomio horri beste elementu bat gaineratu behar zaio: hezkuntza. Artea, aisialdia eta hezkuntza batera joan behar dira, triada honen barnean gizakiaren formakuntzan laguntzen duten faktore egokienak biltzen direlako.

Hauxe posiblea da arteak eta aisialdiak duten izaera askeari esker. Izaera berezi honek, metodologia egoki batean sostengaturik, gizakiongan artearenganako interesa piztea eragin dezake. Baina, nola lortzen da emozio positiboetan oinarritutako interes hori ikaskuntza bihurtzea? Hezkuntza proiektu eraginkor bat burutzeko metodologia bat beharrezkoa da, hots, irakasteko era zehatz eta espezifikoa bat. Aditu gehienek aburuz⁴⁷, aisialdira egokitzen den metodologia pedagogikoa garrantzitsua eta gehien erabiltzen dena aisialdiko-taldeetan artean, hurrengo puntuak bete behar ditu:

1. Interesa piztu behar du: horretarako, bakoitzaren gustuetara egokitu behar da.
2. Interes horrek jarduera zehatzetan gauzatzeko aukera eman behar du: jakintza praktikaren bidez sortzen da. Modu honetan, heziketa esperientzia atsegina izan behar da.
3. Parte-hartze aktiboa: parte-hartzaileak emozionalki inplikatuak sentitu behar dira, erabaki propioak hartu behar dituzte eta horretarako, aske sentitzea funtsezkoa da.
4. Hezitzaileek neska-mutil bakoitzaren bai eta, taldearen desioak eta premiak ere ezagutu behar dituzte, erantzun egokiak aurkitzen laguntzeko.

Elementu eta faktore guztiak kontuan harturik, aisialdiko hezitzaileen hezkuntza-baliabide eraginkorra eta funtsezkoena joko da, aisialdiko hezkuntza-metodologia guztien muina, alegia. Hurrengo atalean, artearen irakaskuntzan jokoaren garrantzia aztertuko dugu.

⁴⁶ FERNANDEZ DE ARROYABE AMIGO, M.L., “El arte como vivencia del ocio”, *Documentos de Estudios de Ocio*, Universidad de Deusto, 13, 2000, 22.orr

⁴⁷ MENDIA, R. eta PITARQUE, J., *op.cit.*, 15.orr.

4.1. Jokoa, hezkuntza-baliabidea

“Dar coherencia y dirección al juego es convertirlo en arte.”⁴⁸

Herbert Head.

Jokoari buruz asko idatzi da. Munduko psikologo, pedagogo eta antropologo ugari jokoaren definizio egoki bat lortzen saiatu dira, baina definizio batzuk konplexuak suertatzen dira eta beste hainbat osatugabeak. Orokorrean, adituen artean gehien erabiltzen den definizioa Johann Huizinga antropologoak eskainitakoa da. Antropologo honek idatzitako *Homo Ludens* izenburu duen bere liburuan honela definitzen du jokoa: “el juego es una acción y ocupación libre, que se desarrolla dentro de los límites temporales y espaciales determinados, según reglas absolutamente obligatorias, aunque libremente aceptadas, acción que tiene su fin en sí misma y va acompañada de un sentimiento de tensión y alegría y de ser de otro modo que la vida corriente”.⁴⁹

Definizio honetatik ondorioztatu dezakegu, jokoak umeari esperientzia propio bat eskaintzen diola. Gizabanako guztiok, umeak garenean, gure ingurugiro eta testuinguru kulturean integrazteko premia sentitzen dugu, ikasteko beharra dugu, alegia.⁵⁰ Premia horrek modu natural batez jolastera bultzatzen gaitu; izan ere, jakin-mina jokoaren bidez bakarrik asetzen da, atsegina izateaz gain, gugan gozamina sorrarazten duelako. Francisco Mora doktorearen aburuz, jokoa naturak asmatutako mekanismo bat da umei ikasten ahalbidetzen diena, gizakiak izateko funtsezkoak diren gaitasun bereziak modu eraginkor batez lortzen laguntzen duen baliabidea da.⁵¹

Umeak jolasten du jolasteak gozamina eragiten diolako, jakin gabe, ekintza horren bidez, ikasten ari dela. Ideia hau kontuan harturik eta berriro ere, neurohezkuntzan oinarrituz, egiaztatu daiteke gozamina irakaskuntza ororen funtsa eta abiapuntua dela.⁵² Aldi berean, bilatzen den plazer hori sortzeko, jokoa, halabeharrez, dibertigarria izan behar da. Oriol Ripoll joko-sortzaileak jokoaren izaera dibertigarriaren

⁴⁸ READ, H., *op.cit.*, 222.orr.

⁴⁹ HUIZINGA, J., *Homo Ludens*, Buenos Aires, Emecé, 1968, 27.orr.

⁵⁰ RIPOLL, O., “El juego como herramienta educativa”, *Revista de intervención Socioeducativa: Educación Social*, Escuelas Universitarias de Trabajo Social y Educación Social Pere Tarrés, 33, 2006, 11-27.orr.

⁵¹ MORA, F., *Neuroeducación. Sólo se puede aprender aquello que se ama*, Madril, Alianza Editorial, 2013, 93.orr.

⁵² *Ibid.*, 93.orr.

garrantzia azpimarratzen du: “Un juego ha de ser divertido, aunque los jugadores estén concentrados buscando la mejor estrategia, el movimiento más interesante o enfadados porque han perdido, puedan decir "me lo he pasado muy bien". Si no produce placer se puede decir que ha sido una actividad, una dinámica o cualquier otra cosa, pero seguro que no se puede afirmar que ha sido un juego.”⁵³ Baieztapen honekin jokoaren izaera hezitzailea nabarmentzen da, gozamina eta irakaskuntza batzeko tresna erabilgarri moduan.

Jolasten dugunean beste modu batez ikasi ezin daitezkeen ezagutzak, kontzeptuak eta baloreak ikasten ditugu. Jokoen bidez, testuinguru berezi bat sortzen dugu non, testuinguru errealean ez bezala, oso erraza den kontzeptuak eta arauak barneratzea. Jokoak huts egiteko, irabazteko, galtzeko, aukeratzeko, besteekin ados jartzeko, eztabaidatzeko... aukera ematen digu, eta haxe da jokoaren baliorik garrantzitsuena. Gaitasun sozialak garatzen laguntzen digun bitartean, ezagutzak berez sortzen ditu.

Proposamen pedagogiko anitzek ziurtatzen dute jokoen eguneroko praktikaren garrantzia umeen garapenean.⁵⁴ Bere onurek garapen kognitiboan, afektiboan, sozialean, komunikatiboan eta psikomotorean eragina dute. Arrazoi guzti hauengatik, jokoaren hezkuntza ez-formalean erabili ez ezik, hezkuntza formalean ere erabili behar da.⁵⁵ Hori dela eta, aisialdian garatzen den edozein hezkuntza proiektua eraginkorra izateko jokoarekin uztartzea ezinbestekoa izango da, bilatzen den interesa pizteko eta ikasketa ahalbideratzeko. Horretarako, hezitzaileak izango dira jokoaren erabili beharko dutenak arte- edukiak era egokian lantzeko. Gadamer filosofoak jada aipatzen du jokoaren artea batzeko erraztasuna⁵⁶; arteak eta jokoak berezko zentzu propioa edukitzeaz gain, zentzu antropologiko batetik ikertuta, biek balio eta izaera pedagogiko berezia dutelako.

⁵³ RIPOLL, O.; *op. cit.*, 14.orr.

⁵⁴ Beste autore batzuen artean, Piagetek, Vygotskyk, Brunerrek, Garveyk eta Garaigordobilek gai hau landu dute.

⁵⁵ DEL TORO ALONSO, V., “El Juego como herramienta educativa del Educador Social en actividades de Animación Sociocultural y de Ocio y Tiempo libre con niños con Discapacidad”, *RES Revista de Educación Social*, Bartzelona, 16, 2013, 1.orr.

⁵⁶ ORUETA, S.D. , “Gadamer: El Arte entendido a través del juego”, *Scientia Helmantica. Revista Internacional de Filosofía*, 2, Universidad de Salamanca, 2013, 80-98.orr.

Haurren bizitza bere etxean, ikastolan eta kalean igarotzen da. Familiek eta ikastolek euren funtzio berezia dute eta euren programa zehaztuak. Horregatik, haurren bizitzan interesatzen zaigun momentua eta esparrua kalea izango da; izan ere, neska-mutilek euren aisialdian burutzen dituzten jardueren bidez, euren gustuak sortzen eta osatzen dituzte.⁵⁷ Hori dela eta, aisialditik hezkuntza-programa jolasgarriak eta erakargarriak eskaini behar dira, artearenganako interesa pizteko eta gaitasun estetiko-kritikoa lantzeko, ahalbidera dezaketenak arlo akademikoan eta museistikoan garatu daitekeen arte-hezkuntzarekiko eskari emankor bat sortzea. Premisa horretatik abiatuta, aisialdian jorratzen den hezkuntzaren xedea, artearen irakaskuntzari dagokionez, hezkuntza formala eta erakunde kulturekin batera elkarlanean eraikitzen den arte-hezkuntza integral bat sortzea izango da.

4.2. Aisialdiko hezkuntza-proiektu baten proposamen praktikoa

Lan honetan, arte hezkuntza kontzeptu integral baten alde apustu egin dugu. Kontzeptu honen arabera baieztatu dugu ezin dela artearen historia modu egoki batean ikasi, ekoizpen eta sormen-prosezuak ezagutu barik edo gure garaiko estetika ulertu barik. Hori dela eta, artearekin lotutako ezagutza guztiak arte-hezkuntza holistiko baten barnean sartzea proposatu dugu. Arte hezkuntza kontzeptu integral hau praktikan jartzeko helburuarekin kultur-elkarte bat sortzeko erabakia hartu eta 2016.urtean Portugaleten (Bizkaia) Espacio Artemisa⁵⁸ elkarte martxan jarri zen. Proiektu honen atzean, Artearen Historia, Arte Ederrak, Ikus-Entzunezko Komunikazioa eta Gizarte Hezkuntza ikasi duten aisialdiko hainbat begirale eta zuzendari gaude. Gure elkarte aisialdian heziketa artistiko-bisualean oinarritutako hezkuntza-programak garatzen eta diseinatzen dituen kultur-hezkuntza elkarte bat da. Artearen historia eta bere protagonistak, materialak, teknikak, adierazpen artistiko ezberdinak... aisialdira hurbildu nahi ditugu, jokoaren hezkuntza-gaitasuna aprobeztatuz, artearenganako interesa bizirik mantentzeko. Honela, artea hezkuntza-baliabide bat baino, berezko helburuak dituen giza-adierazbide bat bezala aurkeztu nahi dugu.

⁵⁷ MENDIA, R. eta PITARQUE, J.; *op.cit.*,16.orr.

⁵⁸ Informazio gehiago webgune honetan: <https://espacioartemisa.wixsite.com/espacioartemisa> (2017/05/11 kontsultatua)

Gure helburu nagusia gizariek pairatzen duen hutsune kulturala betetzea da, giza-baloreetan oinarritutako hezkuntza estetiko-kultural bat eskainiz. Honela, gure elkartearantz funtsezkoa izango da erakunde kulturekin eta ikastolekin batera lan egitea; izan ere, aurretik aipatu ditugun arazoak direla medio, pentsatzen dugu proiektu honen bitartez beste erakundeetako programazioen balorapena eta hobekuntza eragiteko baliabide eraginkorra bihurtu gaitekela. Helburu guzti hauek betetzeko, gure ekintzek jarraitzen duten metodologia praktikoa azalduko dut; izan ere, aipatutako kontzeptu teoriko guztiak ulertzeko ezinbestekoa da bere aplikazio praktikoa azaltzea. Hori dela eta, jarraian, gure elkarrekin aurrera eramaten duen ekintza zehatz bat deskribatzea egokia dela deritzot.

Gure ekintzak “Dalí eta Gala, artisten bila” du izenburu eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzat zuzenduta dago, hau da, 6 eta 12 urte bitarteko neska-mutilentzat. Tailer antzeztu bat da, hots, tailer honetan ikasleek abangoardietako artista garrantzitsu batzuk “pertsonalki” ezagutuko dituzte begiraleen antzezpenaren bitartez, zeintzuk Salvador Dalí, bere emaztea Gala, Joan Miró eta Hannah Höch artisten rolak hartuko dituzten. Lau pertsonai hauek istorio bat sortuko dute ekintza dinamizatu ez ezik, ikasleak atmosfera berezi baten barruan murgiltzeko eta euren inplikazioa lortzeko helburuarekin. Ekintza honen kasuan, pertsonai historiko hauek ikasleei azalduko dieten istorioa hauxe izango da: artea arriskuan dago eta artea salbatzeko laguntza behar dute. Horretarako, hiriz hiri artista izan daitezkeen ikasleak bilatzen ari dira eta haien izenak dira artista izateko aukeratuak izan direnak. Baina hori lortzeko, proba batzuk gainditu beharko dituzte. Frogak egiteko partaideak 4 talde txikietan banatuak izango dira. Modu honetan, lau txoko sortuko ditugu, non lau talde ezberdinek jarraian azalduko ditugun frogak gainditu beharko dituzten. Umeen arreta eta interesa mantentzeko, frogak gehienez jota 20 minutu iraungo dituzte. Froga ezberdinen artean, hauek nabarmenduko ditugu:

Alde batetik, “irudien bidezko ardatz kronologiko kooperatiboa” dugu. Joko honek zentzu hezitzaile nabarmena du; izan ere, bere helburua garai ezberdinetako artelanak azaltzen dituzten irudien bitartez, denbora-lerro bisual bat egitea da. Horretarako, “Lokotx bilketa” Euskal Herriko joko tradizionala hartuko dugu oinarri moduan. Joko tradizional honetan, tarteka eta ilara batean jarritako lokotxak artelan

bilakatuko dira. Irudi hauek kronologikoki desordenatuak egongo dira; honela, talde bakoitzak banan-banan errelebotan irudiak hartu eta bildu ondoren, taldeka euren ordena kronologikoa zehazteko 5 minutu emango zaizkie. Denbora hau igarota, taldekideak berriro ilaran jarrita eta errelebotan, lokotx-irudi hauek berriro banan-banan kokatu beharko dituzte ordena kronologikoari jarraituz (artelan zaharrenak hasieran eta modernoek amaieran) ahalik eta denbora laburrenean. Bi taldeak euren denbora-lerro osatu dutenean, begiraleek irudiz irudiz joango dira (zaharretik modernoenera) talde bakoitzaren irudien kokapena eta zehaztu duten ordena erkatuz. Akatsik balego, hauen inguruko azalpen txiki bat emango dute, partaideek bere akatsa uler dezaten. Akatsak zenbatu ondoren, akats gehien izan duen taldeak arte-historiaren denbora-lerro osoaren azalpen labur bat egin beharko du, euren akatsak zuzenduz. Azalpena beste taldeei aurkeztu beharko diete eta hauxe era egokian egiteko, begiraleen laguntza izango dute. Jokoa amaitzean, funtsezkoa da begiraleek azpimarratzea joko honetan ez dela egon galtzailerik, zerbait berria ikasi duten heinean, guztiak garaile atera direlako. Laburbilduz, hauek dira joko honen helburu orokorrak: artearen historiaren garapena modu orokor batean ezagutzea; artearen historiako artelan garrantzitsu batzuk ezagutzea eta identifikatzea; ikasketa-prozesuaren garrantzia azpimarratzearen bitartez, ezagutza saritzea; talde-lana bultzatzea; gozamina eta dibertimendua sorraraztea, artea eta jolasa batzea eta artearenganako interesa piztea.



Denbora-lerroa egiteko erabiltzen diren artelanen irudi batzuk.
Iturria: Espacio Artemisa

Beste aldetik, “karta artistikoak” nabarmendu behar ditugu. Berez, ez da joko bat baizik eta dinamika ludiko-hezitzaile bat, diziplina artistiko garrantzitsuenak ezagutzea helburu duena. Helburu hau betetzeko, 9 diziplina ezberdindu ditugu: pintura, eskultura, arkitektura, dantza, zinema, argazkigintza, antzerkia, literatura eta musika. Diziplina

bakoitzari karta bat eskaini diogu eta karta bakoitzaren atzean, diziplina zehatz horri lotutako joko edo froga bat proposatzen da; adibidez, eskulturaren kasuan, talde-eskultura bat egitea proposatzen da; literaturaren kartaren atzean, ipuin surrealista kooperatibo bat egin behar dute; antzerkiaren kasuan, antzerkiko ariketa bat edo risoterapian oinarritutako joko bat... eta abar. Partaideek diziplina ezberdinak aukeratu eta proposatzen diren frogak gainditu beharko dituzte. Laburbilduz, hauek dira joko honen helburu orokorrak: diziplina artistiko nagusienak



Karta artistiko batzuen adibidea.
Iturria: Espacio Artemisa

ezagutzea eta hauei lotutako manifestazio ezberdinak sortzea; artearen definizioaren inguruko hausnarketa bat planteatzea; talde-lana bultzatzea; gozamina eta dibertimendua sorraraztea, artea eta jolasa batzea eta artearenganako interesa piztea.

Sarrera moduan erabilitako joko edo froga hauen ostean, taldeak desegin eta guztiak batera, sorkuntza artistikoari ekingo diogu. Bigarren zati honetan, mozarrotutako begiraleek berriro hartuko dute protagonismoa, izan ere, eurek antzeztuko duten artistaren pertsonalitatea hartu eta bere burua eta sorkuntza azalduko diete umeei. Tailer honen kasuan, abangoardietako artistak protagonistak izango direnez, erabaki dugu Salvador Dalík eta Galak aurkezleen rola hartzea eta Joan Miró eta Hannah Höch nazioarteko artisten nortasuna eta obra nabarmentzea.

Joan Miróren kasuan, artista honen figura azpimarratzeko, artistak berak bere burua aurkeztu eta margotzeko duen motibazioa azalduko die umeei eta horren ostean, bere artelan batzuk erakutsiko dizkie. Artelan horien inguruan galdera ireki batzuk proposatuko ditu (adib. zer ikusten duzue?, ze izenburu jarri diezaiokegu artelan honi?). Jarraian, bere margoetan oinarritutako ariketa plastiko bat proposatuko die, bakoitzak bere artelan propioa sortu dezan. Ariketa honetan, artista honek bere artelanak egiteko erabiltzen zuen teknika bat praktikan jarriko dugu, marrazketa automatikoa, alegia. Honela, A3-ko orrialde batean abstraktuak diren lerro eta hutsuneetatik, irudi figuratibo

bat aterako dute ikasleek errotulkiekin egindako kolorezko mantxa kromatikoaren bitartez. Artelana amaitzean, bakoitzaren sinadura jarri beharko dute.

Hannah Höch-en kasuan, aurreko artistarekin jarraitu dugun eskema berbera errepikatu ondoren, bere fotomuntaietan oinarritutako “collage” teknika azaldu eta bakoitzak bere artelan propioa sortuko du. Ariketa honetan, kartulina batean kolatutako egunkari eta aldizkariaren zatiekin munstro bat sortu beharko dute. Amaitzean, munstroari izen bat jarri eta bere sinadura ipiniko dute. Sortu dituzten artelanak besteek ikus ditzaten ikustoki bat antolatuko da. Honela, partaide guztiek besteen artelanak ikusteko aukera izango dute eta euren iritziak edo burutazioak plazaratzeko, bai eta besteen sormena baloratzeko ere aukera izango dute.

Tailer honekin bete nahi ditugun helburuak oso argiak dira: abangoardietako artista garrantzitsu batzuk ezagutzea (kasu honetan, surrealismoari eta dadaismoari lotutako artista modernoak), emakumeen papera artean aldarrikatzea (Gala eta Hannah Höch emakumeen figura nabarmentzea) eta artista hauenganako hurbilketa dibertigarri bat egitea, umeengan artea erakargarria suertatzeko eta kulturarenganako interesa pizteko. Horretaz gain, gure elkarteak umeen sorkuntza artistikoa sustatu nahi du, hori dela eta, gure ekintza guztietan, umeek euren burua artistatzen jotzea bilatuko dugu. Horretarako, begiraleen betebeharra izango da tailerrean sortzen dituzten elementu guztiak artea kontsideratu behar ditugula azpimarratzea; izan ere, guztiak artistak izan gaitzekela argi geratzea funtsezkoa da guretzat. Tailerra elebiduna da, materialak euskaraz zein gaztelera daude prestatuak⁵⁹, eta begirale guztiek bi hizkuntzak erabiltzeko gaitasuna dute. Halako tailerrak egiterako orduan, taldearen behar eta interesak kontuan hartzen ditugu.

Tailer hau praktikan jarri dugu 2017. urteko maiatzean, Gasteizko Urkide ikastolak garatzen duen *RECRÉATE*⁶⁰ proiektuaren barnean, ikasleen artean sormena sustatzea helburu duena. Familiei zuzendutako eskolaz kanpoko tailer bat bezala eskaini

⁵⁹ Irudietan ikusgarriak diren materialak gaztelaniaz baino ez daude, orain arte burutu ditugun tailer gehienak garatu garatu ditugulako. Hala ere, materialak bi hizkuntzetan prestatzeko ahaleginetan gaude.

⁶⁰ RECRÉATE Proiektua: Ábrete Urkide. Urkide Ikastolako web orria: <http://www.urkide.org/proyectos-y-programas/creatividad/> (2017/05/16 kontsultatua)

genuen; hori dela eta, azalpenak gaztelaniaz eta euskaraz egin genituen guztien ulermena bermatzeko. Tailer honen emaitza oso positiboa izan da; izan ere, ikastolako zuzendaritza taldea eta baita, guraso-elkartea ere oso pozik geratu dira ekintzarekin. Bertaratu ziren familiek ere atsegin handiz hartu zuten tailerra. Umeek primeran pasatu zuten, erabat inplikatzeari lortu genuelako. Guretzat sentimendu positibo bat uztea da garrantzitsuenak, beste helburuak betetzeko abiapuntutzat jotzen dugulako. Ondorioz, etorkizunean halako ekintzak egiten jarraituko dugu, uste dugulako esperientziak gure akatsak zuzentzeko aukera ematen digun heinean, bide onetik goazela.



Azaldu dudana tailer honen bitartez, arte hezkuntzaren inguruan aurretik plazaratu ditudan ideia teoriko guztien aplikazio praktikoa azaltzea espero izan dut, hau da, arte hezkuntzaren ideia nagusiak laburbildu eta materializatu lezakeen adibide argi bat erakustea izan dut helburu. Tailer honetan aipatutako *art thinking* metodologia hartu dugu oinarri eta aisialdian aplikatuko dugu, esparru ludiko honetan ohikoak diren dinamikekin uztartuz. Honi esker, espero dugu arte hezkuntza integral bat osatzen duten hiru pilareak (sorkuntza, artearen historia eta kritika/estetika) kontuan hartzea eta aisialdian kalitatezko esperientzia ludiko-hezitzailea eskaintzea.

5. Ondorioak

Arte hezkuntza beharrezkoa da gizakiaren garapen integralerako. Artearen bidez garatzen diren aspektuek (irudimena, emozioa, sorkuntza, ezagutza...) gizaki askeagoak

eta kontzienteagoak izaten laguntzen gaituzte. Tamalez, gaur egungo hezkuntza arautuan, lege berrien babesarekin, arte hezkuntza nolabaiteko bazterketa sufritzen ari da. Hala eta guztiz ere, gero eta irakasle gehiago daude arte hezkuntzaren garrantzia aldarrikatzen dutenak. Honen ildotik, arte hezkuntza unibertsal bat defendatu behar da, bi zentzutan: alde batetik, guztiontzat baliogarria den oinarrizko hezkuntza sustatu behar da, ez bakarrik artistak izateko gaitasunak erakusten dituztenei zuzendutako hezkuntza (derrigorrez matematika ikasten dugun bezala, artearen inguruko oinarrizko ezagutzak ikasteko aukera bermatu behar da) eta beste aldetik, kalitatezko arte hezkuntza integral bat eskaini beharko litzateke (eskulanetatik urruntzen den hezkuntza, non sorkuntza, teoria eta kritika kontuan hartzen diren).

Umeei irudiak begiratzen, sortzen eta ulertzen irakasten badiegu, gizaki kritikoak bihurtzeaz gain, arteak gizartean izan beharko lukeen garrantzia eta balorapena hobetzea posiblea izango litzateke. Honen ildotik, aisialdian garatzen den hezkuntza funtsezkoa da eta potentzialitate handia eskaintzen du; izan ere, esparru egokia izan daiteke gaur egungo hezkuntza formalaren programazioen gabeziak eta edukiak osatzeko eta hauei laguntzeko. Zentzu honetan, aisialdia hezkuntza-esparru berri gisa aurkezten saiatu naiz, arte hezkuntza proiektu integral bat garatzeko eskaintzen duen egokitasuna argudiatuz.

Laburbilduz, Gradu Amaierako Lan honen bidez, arte hezkuntzaren inguruko hainbat aspektu aztertu ditut (gizakien formakuntzarako duen garrantzia, derrigorrezko hezkuntzan duen egoera eta aisialdiak izan dezakeen papera), aisialdian arte hezkuntza proiektu bat garatzeko proposamen baten beharra justifikatzeko. Honela, artearenganako interesa gal ez dadin, aisialditik praktika eta esperimendazio artistikoa sustatzen duten espazio berriak sortzea beharrezkoa ikusten dugu. Premisa honetatik abiatuta, Artearen Historiako Gradua amaitu ostean, Espacio Artemisa elkartearen bidez, aisialdian kalitatezko arte hezkuntza programak diseinatzea desiratzen dut. Horregatik funtsezkoa iruditu zait aplikazio guztiz praktikoa eta baliagarria duen ikerketa lan hau burutzea.

6. Bibliografía

- ACASO, M., *La educación artística no son manualidades: Nuevas prácticas en la enseñanza de las artes y cultura visual*, Madril, Los Libros de la Catarata, 2009.
- CALAF, R. eta FONTAL, O., *Como enseñar arte en la escuela*, Madril, Editorial Síntesis, 2010.
- CAMPBELL, J., *El héroe de las mil caras: Psicoanálisis del mito*, Mexiko, Fondo de Cultura Económica, 2001.
- CUENCA CABEZA, M., “Zer da aisia? 25 erantzun klasiko eta lekukotza bat”, *Documentos de Estudio de Ocio*, Universidad de Deusto, 49, 2012.
- DEL TORO ALONSO, V., “El Juego como herramienta educativa del Educador Social en actividades de Animación Sociocultural y de Ocio y Tiempo libre con niños con Discapacidad”, *RES Revista de Educación Social*, Bartzelona, 16, 2013.
- FERNANDEZ DE ARROYABE AMIGO, M.L., “El arte como vivencia del ocio”, *Documentos de Estudios de Ocio*, Universidad de Deusto, 13, 2000.
- GARAGALZA, L., *La interpretación de los símbolos*, Bartzelona, Editorial Antrophos, 1990.
- HERNÁNDEZ MENDO, A., “Acerca del ocio, del tiempo libre y la animación sociocultural”, *Revista Digital-Buenos Aires*, Universidad de Málaga, 23, 2000.
- HUIZINGA, J., *Homo Ludens*, Buenos Aires, Emecé, 1968.
- MENDIA, R. eta PITARQUE, J., *Educación en el Tiempo Libre*, Salamanka, San Pío X, 1975.
- ORUETA, S.D., “Gadamer: El Arte entendido a través del juego”, *Scientia Helmantica. Revista Internacional de Filosofía*, 2, Universidad de Salamanca, 2013.
- PÉREZ, G., “El ocio y el tiempo libre: ámbitos privilegiados de educación”, *Comunidad Educativa*, Universidad de Málaga, 161, 1988.
- READ, H., *Educación por el arte*, Bartzelona, Paidós, 1982.
- RIPOLL, O., “El juego como herramienta educativa”, *Revista de intervención Socioeducativa: Educación Social*, Escuelas Universitarias de Trabajo Social y Educación Social Pere Tarrés, 33, 2006.

Beste iturriak

Ley Orgánica 8/2013 del 9 de noviembre, para la mejora de la calidad educativa (LOMCE), *Boletín Oficial del Estado*, 10 de diciembre de 2013, 295 97870- 97871.orr.
Eskuragarria: <https://www.boe.es/boe/dias/2013/12/10/pdfs/BOE-A-2013-12886.pdf>

236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena, *BOPV*. Eskuragarri: http://www.isei-ivei.hezkuntza.net/c/document_library/get_file?uuid=c46b61d2-be04-41f0-b022-ad4383869cd9&groupId=635622

TORRES MENÁRGUEZ, A., *Profesoras contra la pedagogía tóxica*, El País egunkarian argituratua 2017ko otsailaren 13an. Eskuragarria online: http://economia.elpais.com/economia/2017/02/07/actualidad/1486485679_572946.html?id_externo_rsoc=whatsapp.

TORRES MENÁRGUEZ, A., *Entrevista a Francisco Mora, Experto en neuroeducación: “Hay que acabar con el formato de clases de 50 minutos”*, El País egunkarian argitaratua 2017ko otsailaren 20an. Eskuragarria online: http://economia.elpais.com/economia/2017/02/17/actualidad/1487331225_284546.html

Webgrafia

Espacio Artemisa Elkartearen web orria: <https://espacioartemisa.wixsite.com/espacioartemisa> (2017/05/11 kontsultatua)

Guggenheim museoaren web orria: <http://lta.guggenheim-bilbao.eus> (2017/05/15 kontsultatua)

Guggenheim. Aprendiendo a través del Arte 2016 / Artea Ikasbide 2016: <http://lta.guggenheim-bilbao.eus/eu/parte-hartzaileak/> (2017/05/14 kontsultatua)

RECRÉATE: ÁBRETE Urkide Proiektua. Urkide Ikastola: <http://www.urkide.org/proyectos-y-programas/creatividad/> (2017/05/16 kontsultatua)